

## Lasarte-Oriako Antzerki Astea maiatzak 23tik ekainaren 16ra

Herriko 30 taldek hartuko dute parte maiatzaren 23tik ekainaren 16ra bitartean, atzo, osteguna eguerdian aurkeztu zen Lasarte-Oriako VII. Antzerki Astea. Beraz, 300 antzezle inguru igoko dira hiru aste horietan Kultur Etxeko oholtza gainera. /Setik aurrera



## Buruntz-Azpiren Garagardo Azokak Ostadar omendu du

12 garagardo ezberdin dastatu daitezke igande gauerdira bitartean

Buruntz-Azpi elkarteak Basaundin jarri duen Garagardo Azoka atzo arratsaldeko 18:00tan ireki zen eta igande gauerdira arte egongo da zabalik. 12 garagardo ezberdin probatu daitezke eta ohiko menua dastatu ere bai, ukondoa, saltxitxak, txorixo egosia, lakoia, patata bixiak, kalamarrak eta euskal pastela besteak beste. Azoka irekitzeko ohorea Ostadar elkarteari eman dio aurten Buruntz-Azpi eta herriarengatik egiten duen lana goraipatu zuten irekiera ekitaldian. Ostiral eta larunbatean arratsaldeko 18:00tik aurrera eta igandean eguerditik gauerdira egongo da zabalik. Aurten iaz bezala hiru mila lagun inguru espero dira azokan. •



Buruntz-Azpioko futxi lendakaria eta Joxe Manuel Aranburu, Ostadarreko Joxean Belartietia, Gorri eta Itziar Carrascorokin.

## Emakumeek sufritzen dute

Lasarte-Oriako Bilgune feministak aste honetan bi ekitaldi gauzatu ditu. Batetik astelehenean Udaletxeetako arkupeetan bildu ziren. Honela, asteburuan Irunen labankadaz erahildako emakumea gogora ekarri nahi izan zuten eta, era berean, emakumearen aurkako indarkeria salatu. Bestalde, asteazkenean *Krisian emakumeok ahaztuenak eta kaltetuenak* lelopean *A la deriva por los circuitos de la precariedad femenina* dokumentalaren emanaldia egin zuten Xirimirin. Honetaz gain, Bilgune Feministatik krisiaren inguruan egiten dugun irakurketaren aurkezpena egin eta eztabai-darako tartea ere egon zen. •



GAIA/ 3

Lasarte-Oria, Usurbil, Hernani, Urnieta eta Astigarragarekin lotuko duen bus zerbitzua martxan da gaurtik

GAIA/ 4

Amezketatik abiatu eta Irantzuko monasteriora, hamabi ordu eta erdi oinez



## SUGATE

Sukaldeak

vegasa  
Beti lehenengo egunean bezala.



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



DESKONTU BEREZIAK  
%20 desk. modelo desberdinetan

MERKATUKO PREZIO HOBERENAK !!

**Neure kabuz**



**Arizmendiarieta**

Oraindik orain, Maiatzaren 6an, Donostiako Katedralean, on Jose Maria Arizmendiarietaren bizitza, bertute eta santutasun ospari buruzko Prozesuaren Amaiera Ekitaldia ospatu da. Bertan ziren gure gotzaina den Uriarte jauna, oraingo fase honetan epaile izan diren eliza-auzitegiakoak, informatze lana egin duen Postulatuzaile deituriko pertsona, bere arreba eta ilobak, testigu bezala parte hartu dutenak eta bere jarraitzaileetako asko eta asko, bereziki Arrasate-Mondragon Kooperatibetan lan egiten dutenak.

Ni neuk ospe handia izan dut lan honetan parte izatearekin, zeren on Jose Mariaren idazkiak aztertu behar izan ditut eta, han ikusi dut nolako pertsona eta zer nolako lana egin zuen, apaiz bezala beti, baina herriaren bizitzan txertatuz eta behar ziren guztiak egiteko prest, herriko jenderik behartsuenak eta langilegoa, espresuki, elkarkidetzan hesituz eta hitzak baino ekintzak bideratuz. Horrela uler daiteke bakarrik, geroa hain ezagun diren Kooperatibak eta ingurukoak, naiz gauzak asko aldatu diren denboraren poderioz.

Ikastekorik asko daukagu horrelakoetan, baina gure memoria hain da zabarra! Harritu ere askotan harritzen naiz zenbaterainokoak garen ikusirik! Esker oneko izaten ez dakit jakin badakigun, baina ematen dugun irudia benetan, traketsa da, zeren oso hotzak azaltzen bai gara, erreserbatuegiak, poz gutxiokoak..., naiz gure arteko hainbat eta hainbat pertsona eredugarri izan munduan, eta kasu honetan, kristau dotrinaren arabera, agian, benetako gaurko santu baten aurrean aurkitu.

**Xabier Andonegi**

**Zorion-agurrak**



**Naike, Mundu eta Larra**

Zorionak hirukote! Erabaki al deu nun dan afaria? Koadrilakideak inpatiente dituzue ta!



**Oihana**

Zorionak bihotza zure bizilagunaren partetik.



**Aitor**

Zorionak eta ondo-ondo pasa, pirata! Zure bizilagunaren partetik.



**Asier**

Zorionak! Muxu handi bat familiaren partetik!



**Salma**

Ongi etorri Salma! Muxu hobeto bat izan dezazun borrokatuko dugu.



**Amaia**

Etxeko printzesarentzat muxu handi-handi bat Beñat, Irati eta gurasoen partetik.



**Yolanda**

Muxu handi-handi bat aita eta aiton-amonaren partetik.



**Oier eta Julen**

Zorionak Oier eta Julen. Bost muxu potolo bana Ander, Patxo eta Anderren partetik.



**Aimar**

Zorionak pottolo!! Bi muxu handi aitaixo eta amatxoren partetik.



**Josu eta Juana Mari**

Zorionak bikote! Egun ederra izango dugu bihar! Muxu handi bat familiaren partetik.

**Guardiak**

**Ostirala, 15**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Larunbata, 16**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Igandea, 17**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Astelehena, 18**

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Asteartea, 19**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Asteazkena, 20**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Osteguna, 21**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdia**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ... 943 464622  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ... 943 362442  
Ertzaintza ... 943 288888  
SOS Deiak ... 112

**Udala**

Erregistroa ... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ... 943376182  
Kulturetxea ... 943376181  
Bakezko epaitegia ... 943371629  
Zerbitzu Sozialak ... 943376179  
Zentro Zibikoa ... 943363958  
KIUB ... 943361605  
Udal euskaltegia ... 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

**Jaiotzak**

Eneko Gallardo Larrañaga, maiatzaren 11n  
Julen Expósito Ferreras, maiatzaren 9an  
Mª José Zapirain Pacheco, maiatzaren 6an  
Mara López Rodriguez, maiatzaren 5ean  
Ander Baquero Ayuela, maiatzaren 5ean  
Ihalar Izagirre Larruskain, maiatzaren 5ean

**Heriotzak**

Jesus Mª Rico Rodriguez, maiatzaren 12an  
29 urte zituela

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Lasarte-Oriako zentroan pisu bat alokatzen dut. Harremanetarako, 686 674 552.

• Lasarte-Oriako zentroan garajea alokatzen dut. Harremanetarako, 686 674 552.

• Ezcaray-en duplex bat saltzen da. Erreka ondoan dago, igerilekua daukan urbanizazioan. 3 logela ditu eta etxea jantzita dago. Ia berria.  
Tel.: 652774679

• Pisu saltzen da Lasarte-Orian. Erdialdean, kanpora ematen duena eta berritua. 2 gela, sukaldea eta egongela. 260.000 euro. Harremanetarako zenbakia, 626 505 689.

**Salerosketak**

• Salgai haurra eramateko kotxea eta aukia. Jane Nomad markakoa da. Egoera onean.  
Tel.: 687 965454.

**Lan-eskariak**

• Lasarte-Orian bizi den emakume gaztea eskeintzen da, etxeko lanak, garbiketak edo eta pertsona helduak zaintzeko. Harremanetarako zenbakia, 671 474 513.

• Emakume arduratsua eskaintzen da, garbiketak egin, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko. Egun osorako eta erreferentziarik. Harremanetarako zenbakia, 629 946 794.

• Hemengo emakume bat eskaintzen da ordu batzutan lana egiteko Lasarte-Orian edo inguruan. Tel.: 943 364310.

• Emakume arduratsua bat eskaintzen da haurrak zaintzeko arratsaldean.  
Tel.: 943 376447, 635 725141.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858 • Geltoki 4  
txintxarri@ttakun.com  
www.txintxarri.info  
www.txintxarri.iragarkilaburak.com

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



# Buruntzaldeko herriak gertuago gaurtik

■ Astigarraga-Usurbil eta Urnieta-Usurbil autobus linea berriak gaur jarriko dira martxan

**TXINTXARRI**

Lasarte-Oriako herritarrek gaurtik aurrera Hernani, Astigarraga, Urnieta edo Usurbilera joateko era erraza eta zuzena izango dute.

Orain artean, herri hauetara joateko bi garraiobide hartu behar ziren, baina gaur martxan jarri diren bi autobus lineek garraiobide batean joatea ahalbidetuko du.

Astigarraga-Usurbil eta Urnieta-Usurbil autobus linea hauek Buruntzaldeko garraio sarea hobetuko dute. Izan ere,

autobus-linea hauek lur eremu ezberdinetan zeuden lau autobus konpainiek egiten zuten lana egingo baitute.

**Atzeratutako erabakia**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Astigarraga, Hernani, Lasarte, Usurbil eta Urnieta arteko autobus-linea bakarra sortzea aurreikusten zuen 2008an.

2009ko aurrekontuan sartu zen proiektua eta urtarrilerako aurreikusia zuten autobus linea martxan egotea.

Lau hilabeteko atzerapenarekin, maiatzaren 5ean,

Batzar Nagusiek bi linea berri hauek ezartzea onartu zuten.

**Linea bakarra eta epea**

Bi linea hauek bigarren ingurubideko lanak bukatzean bakarean bilakatuko dira.

Era berean, urte beteko epea izango da bi linea hauen harrera ikusteko. Herritar

kopuru handiak erabiltzen baldin baditu, zerbitzu hau ematen jarrituko dute.

**Lurraldebus**

Arestian esan bezala, bi linea hauek Lurraldebus sarea osatuko dute Buruntzaldean.

Eta beraz, Lurraldebus txartela erabili ahal izango

dutenek lehenengo egunetik autobus bidaietan deskontuak izango dituzte.

Ordutegiak eta ibilbideak behean dauden tauletan kontsulta daitezke. Informazio gehiago izateko, Lurraldebusko web orrialdean edo TSST ko konpainiara dei daiteke 943 361 740. •

Urnieta-Usurbil autobus linea						
<b>Joateko Ibilbidea</b>						
Usurbil-Nagusia - N-634 - Atallu Industrialdea - Santu-Enea - Leartitza bidea - Zubieta - Cruce del Hipodromoko bidegurutzea - Oriako zubia - Hipodromoko hiribidea - Dorretzeko biribilgunea - Nagusia - Goikale - Urnieta bidea (GI-3832) - Zabaleta kalea - Idiazabal kalea (GI-131) - Rotonda osasun-zentroko biribilgunea						
<b>Ertortzeko Ibilbidea</b>						
Ibilbidea joanekoaren alderantzizkoa izango da, Lasarten Kale Nagusira Loidi kaletik eta Bekokaletik sartzen dela izan ezik.						
<b>Asteleheneretik ostiralera. Lanegunak</b>						
Urnieta	Lasarte	Usurbil	Usurbil	Lasarte	Urnieta	
08:00	07:15	07:30	07:30	07:45	08:00	
09:00	08:15	08:30	08:30	08:45	09:00	
	09:15	09:30	09:30	09:45	10:00	
	12:15	12:30	12:30	12:45	13:00	
13:00	13:15	13:30	13:30	13:45	14:00	
14:00	14:15	14:30	14:30	14:45	15:00	
	18:15	18:30	18:30	18:45	19:00	
19:00	19:15	19:30	19:30	19:45	20:00	
20:00	20:15	20:30	20:30	20:45	21:00	
<b>Larunbatak</b> Egungo lau bidaiak Lasarte (autobus tokitik)-Zubieta artean						
Lasarte	08:10	12:40	15:00	21:30		
Zubieta	08:15	12:45	15:05	21:35		
<b>Igande eta jaiegunak</b> Egungo lau bidaiak Lasarte (autobus tokitik)-Zubieta artean						
Lasarte	11:15	13:25	15:25	21:30		
Zubieta	11:20	13:30	15:30	21:35		

Astigarraga-Usurbil autobus linea										
<b>Joateko Ibilbidea</b>										
Usurbil- Txikiardi- Urbil- Belartza biribilgunea- Lasarte (Nagusia biribilgunea)- Errekalde- Galarreta- Sorgintxulo- Hernani (Zinkoenea)- Akarregi- Ergobia-Astigarraga.										
<b>Ertortzeko Ibilbidea</b>										
Astigarraga- Ergobia- Akarregi- Hernani (Zinkoenea)- Anciola- Galarreta- Errekalde- Lasarte (Nagusia biribilgunea)- Belartza biribilgunea - Urbil- Txikiardi- Usurbil.										
<b>Asteleheneretik larunbatera. Lanegunak</b>										
Astigarraga	07:00	07:30	08:00	08:30	09:00	09:30	10:30	11:30	12:30	13:00
	13:30	14:00	14:30	15:00	15:30	16:30	17:30	18:30	19:00	19:30
	20:00	20:30	21:00	21:30	22:00					
Usurbil	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15
	13:45	14:15	14:45	15:15	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45
	20:15	20:45	21:15	21:45	22:15					
<b>Igande eta jaiegunak</b>										
Astigarraga	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00		
Usurbil	15:15	16:15	17:15	18:15	19:15	20:15	21:15	22:15		



## Udako txokoetako izena emateko azken astea

Hauek udan ongi pasatzeko aukera zabaldu eskaintzen du Ttakun Kultur elkarteak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz antolatzen dituen Udako Txokoetan.

Txikientzako psikomotritzitate programa, HH5 eta LH2koentzat naturaz eta kirolaz gozatzeko aukera eta LH3 eta LH6koek abentura eta kirolaz betetako egunak bizi ditzuzte.

Hauetan guztietan, izena emateko epea maiatzaren 27an bukatzen da, beraz, azken astean sartu gara ia.

Animatu eta izena eman uda zoragarria igaroko baitute Udako Txokoetako haurrek.

**Kanpaldiak**

Era berean, Ttakuneko aisiako arduradunak jakin arazten du kanpaldietarako izena emateko dagoeneko itxi dela. •

## KZguneak Administrazio elektronikoa buruzko ikastaroa martxan jarri du

Lasarte-Oriako KZguneak Administrazio elektronikoa buruzko ikastaro berrirako izen-emate epea ireki du.

Horretan, Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiarekin, Administrazio zentralarekin eta Udalarekin Internet bidez elkarri eragiten irakatsiko dute. Erabiltzaileek ikasiko dute, besteak beste, Osakidetzan medikuarekin hitzordua nola eskatu, jaiotza-ziurtagiria nola lortu, enplegua bilatu, liburutegien Euskadiko sarean liburu nola topatu, errenta-aitorpena egiten edo laneko bizitza aurkitzen.

Era berean, Lasarte-Oriako Udaleko web orriarekin elkarri eragiten irakatsiko dute ordaintekak egin ahal izateko eta errolda edo ordaindutako eta ordaintzeko dauden ordainagiriak kontsultatzeko.

KZguneak, Eusko Jaurlaritzaren eta Lasarte-Oriako

Udalaren elkarlanari esker sortu zena, etapa berri bati ekin dio Euskadin Administrazio elektronikoa eratzeko.

Herritarrei Internet bidezko izapideak egiten erakustez gain, helburua da itxaron denborak murriztea, kostuak gutxitzea (papera, bidaiak, eta abar) eta sarearenganako konfiantza eta segurtasuna areagotzea.

Ikastaroa zortzi egunetan zehar egingo da (16 ordu guz-

tira) eta presentziala eta doa-koa izango da. Aldez aurreko izen-ematea Oriamendi plazan dagoen KZgunean egin behar da, eta informazio gehiago nahi izanez gero 943 36 05 68 telefono zenbakira deitu daiteke.

Lasarte-Oriako KZguneak 2002 urtean zabaldu zituen ateak eta ordutik 3.023 pertsona inskribatu dira, horien artean 1.583 Interneteko has-tapen ikastaroa egin dute. •



# Amezketatik Irantzuko monasteriora hamabi ordu eta erdi oinez

- Lasarte-Oriako koadrila batek beste urtetan bezala mendi ibilaldi luzea osatu zuen larunbatean
- Hil berri den Jose Luis Aranbururen omenez urtero mendi irteera berezia prestatuko du taldeak

Jose Luis Aranburu mendigoizalearen omenez hogeiren bat herritar Amezketatik Lizarra ondoan dagoen Irantzuko monasterioraino joan ziren aurreko larunbatean. Guztira hamabi ordu eta erdi behar izan zituzten mendi ibilaldi luze hau osatzeko. Dena den, "gustuko bidean aldaparik ez" leloa inoiz baino argiago izan zen ibilaldia egin zuten artean. Eta esan daiteke neke handirik ez zutela nabaritu, ondoren guztiak elkarrekin afaldu eta hurrengo goizera arte luzatu baitzuten eguna.

## TXINTXARRI

Azken urteotan ohiko bihurtu da lasarteoriatar koadrila batek udaberriko garai honetan, mendi ibilaldi luzea prestatu eta burutzea.

Aurreko urteetan Lasarte-Oriatik abiatuta Arantzazura eta Aralarko San Migelera joan ziren; iaz itsas ertzetik Pasai Donibane eta Hondarribi arteko bidea egin zuten eta aurten Amezketatik Irantzuko monasteriorainokoa egin dute. Hamabi ordu eta erdi oinez, Gipuzkoa eta Nafarroa artean.

Amezketatik abiatu ziren larunbatean, goizean goiz, eta Irantzuko monastegia zuten helmuga. Iluntzerako han ziren, Minas, Aralar, Arbizu, Etxarri-Aranatz, Etxarriko lepoa eta 1.239 metroko altuera duen Dulantz menditik pasa eta gero.

### Jose Luis Aranburu gogoan

Ibilbidea, Fati Serranok eta Joxean Salsamendik prestatu zuten, orain dela gutxi gure artetik joan den Jose Luis Aranbururen omenez.

Izan ere, lasarte oriatar asko dira mendietan lehen pausoak Jose Luisekin eginda-

koak, aurreko larunbatean ibilaldia osatu zutenetako batzuk esaterako. Gainera, aipatutako Jose Luis Aranburu mendigoizalearen omenez, urtero ibilbide bat antolatuko dutela aurreratu dute.

### Laugarrena

Aurtengoa ez da lehenengo ibilaldia. Aurreko urteetan ere ibilaldi luze eta bereziak egin dituzte. Lehen urtean Lasarte-Oriatik abiatu eta Arantzazuko Santutegiraino joan ziren; hurrengo urtean, berriro herritik abiatuta Aralarko San Migel-eraino, iaz 6-7 orduko mendi ibilaldi bikaina burutu zuten itsas ertzetik, Pasai Donibane eta eta Hondarribi artean.

Aurtengoa gogorragoa izan da, ordu batzuk gehiago egin dituzte oinez. Baina ez gogorregia: hamabi ordu eta erdi oinez ibilbidea osatu eta gero elkarrekin afalduz eman zioten amaiera "sufirimendu adina une gozo izan zituen egunari".

Oso nekatuak zirenik ezin da esan, ez ziren eta berehalakoan oheratu. Hurrengo egunean, goizean goiz, Amezketatik abiatu zirenetik ia 24 ordu berandugo, amaitu zuten eta parranda. •



Lasarteoriatarrek hamabi ordu eta erdi behar izan zituzten Amezketatik eta Irantzuko arteko bidea egiteko.

## M. Berasategi



### Kafeak

Beñi dago aukera kafe on bat hartzeko



### INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

### TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

### KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316  
LASARTE-ORIA



# Katuak 7 bizi, antzerki asteak dozenaka!

Aurtengoa maiatzaren 23an hasi eta ekainaren 16ra bitartean luzatuko da

Ilusio handiz hasi zen orain zazpi urte Landaberri Antzerki Eskola. Hasi, benetan hasi Zabaletan auzoan izan zen haurren bi talderekin. Gero Landaberri ikastolari luzatu zitzaion proposamena, eta zazpi urte geroago 300 lagun inguru; haur, gazte eta heldu, dabilta Antzerki Eskolan.

Amets izatetik errealitatea izatera iritsi da Lasarte-Oriako Antzerki Astea. Aurtengo edizioa zazpigarrena da jadanik. Gero eta jende gehiago, gero eta talde gehiago, gero eta arte diziplina gehiago ditu Antzerki Eskolak. Izan ere, hasiera batean antzerkia soilik irakasten zen eskolan, baina gero dantza garaikidea txertatu zen, eta honek poliki-poliki bere lekua egin du.

## Kulturetxetik beste herritara

Nork pentsatu behar zuen, kulturetxeko ekitaldiaz gain, Antzerki Asteaz gain alegia, beste herritan ere antzetera eta dantzazera joango zirenik Antzerki Eskolako kideak.

Badira bizpahiru urte gure taldeak Debara eta Usurbilera joan zirela beraien lanak erakustera. Geroztik Azpeitian, Deban, Andoainen, Zarautzen, Beran... izan dira antzerkiko zein dantzako taldeak beraien emanaldiak eskaintzen.

## Astea hasteko, desfilea

Zazpigarren Antzerki Aste hau inoiz baino luzeagoa izango da. Maiatzaren 23an hasiko da eta ekainaren 16an

bukatuko da. Esan daiteke, Antzerki Astea beharrean, Hilabetea izango dela. Baina hainbeste luzatzearen arrazoiak bi dira; alde batetik Manuel Lekuona kulturetxeko programazioa medio, ezin izan dugu jarraian egin eta bestetik, urteko urtera talde gehiago ditugunez, egun gehiago behar ditugu.

Aurtengo Antzerki Asteari hasiera modu ikusgarrian emango diogu gainera, desfile bat antolatu dugu maiatzaren 23rako, 19:00etatik aurrera. Bertan Antzerki Astearen emanaldia eskainiko duten talde guztiek hartuko dute parte, 300 lagun inguru. Kulturetxetik abiatuko da desfilea, eta herriko erdigunean buelta bat eman ondoren berriro itzuliko dira kulturetxera;

ondoren dantza emanaldia izango baita.

## Antzerki Eskola sendotzen

Aurtengo ikasturtean Antzerki Eskolaren inguruko batzorde bat sortu dugu, bertan eskolako partaidea gain, antzerkia eta dantza gustatzen zaien kideak ere badaude.

Batzorde honen helburua Antzerki Eskola sendotzea da, pauso bat harago eman eta herri mailara salto egitea da. Lehen esan bezala, eskola izugarri handitu da, eta egitura maila berean sendotu behar da, paperezko gaztelua bihurtu ez dadin. Batzordearen ondorioak ekainean egingo den Batzar Nagusi batean emango dira. •

**7. ANTZERKI Astea 2009**  
Maiatzaren 23tik eKainaren 16ra  
Lasarte-Oria  
Manuel Lekuona Kulturetxean  
Landaberri Antzerki Eskola

KATUAK 7 BIZI,  
ANTZERKIAK ETA DANTZAK 11.  
Lasarte-Oriako antzerki asteak dozenaka!

Kartela: J. Tokero

Antolatzaileak: Laguntzaileak:



# VII. Antzerki asteko antzerkiko taldeak



Top movie' lanelo protagonistak, Landaberriko 1. mailakoak.



Rock and Roll' lanelo protagonistak, Landaberriko 1. mailakoak.



Ametsak lanelo protagonistak, Landaberriko 2. mailakoak.



Ametsak lanelo protagonistak, Landaberriko 2. mailakoak.



Ametsak lanelo protagonistak, Landaberriko 2. mailakoak.



Ametsak lanelo protagonistak, Landaberriko 2. mailakoak.



Mimo antzerki lanelo protagonistak, Landaberriko 3. mailakoak.



Mimo antzerki lanelo protagonistak, Landaberriko 3. mailakoak.



Berrekin agiten ez zeketen piratza lanelo protagonistak, 4. mailakoak.



Ipuinen Kerria erregere lanelo protagonistak, Landaberriko 4. mailakoak.



Kalki... hasi filmazten lanelo protagonistak, 5. mailakoak.



Kalki... hasi filmazten lanelo protagonistak, 5. mailakoak.



Kalki... hasi filmazten lanelo protagonistak, 5. mailakoak.



Lizara Magikeak lanelo protagonistak, Landaberriko 6. mailakoak.



Lizara Magikeak lanelo protagonistak, Landaberriko 6. mailakoak.



Lizara Magikeak lanelo protagonistak, Landaberriko 6. mailakoak.



U tanta batzen istorio Zabeletako haurren taldea.



Iprobiak lanelo protagonistak, Landaberriko DBH1.



Iprobiak lanelo protagonistak, Landaberriko DBH2.



Camp Rock lanelo protagonistak, Landaberriko DBH3-4.



Grece lanelo protagonistak.



Habeto kantuak... eraz kantuak lanelo protagonistak.



Eze haurren jatorri da lanelo protagonistak.



# VII. Antzerki asteko dantzako taldeak



Fandantragoreinusot laneko protagonistak.



Fandantragoreinusot laneko protagonistak, DBH I.



Fandantragoreinusot laneko protagonistak, DBH I-2.



Fandantragoreinusot laneko protagonistak, DBH 2-3.



Fandantragoreinusot laneko protagonistak.



Fandantragoreinusot laneko protagonistak.



Fandantragoreinusot laneko protagonistak.

## Egitaraua

**Maiatzak 23, larunbata, 19:00etan**  
"Desfilea"

VII. Antzerki asteko partaide guztiak  
**Maiatzak 23, larunbata, 20:00etan**  
"Fandantragoreinusot"  
Dantza garaikideko talde guztiak

**Maiatzak 27 asteazkena, 10:15ean eta 19:00etan**

"Inprobisaketak"  
DBH I-2  
"Camp Rock"  
DBH 3-4

**Maiatzak 30 larunbata, 22:30ean**

"Holako kontuk... eta komerik"  
"Etxe hauetan... jakina da"  
Helduen taldeak

**Ekainak 8 astelehena, 11:00etan eta 19:00etan**

"Ur tanta batzuen istoria"  
Zabaletako taldea  
"Barrerik egiten ez zekien printzesa"  
"Ipuinen herriko erregea"  
Landaberri 4. maila

**Ekainak 9 asteartea, 11:00etan eta 19:00etan**

"Mimo ariketak"  
Landaberri 3. maila  
"Ixilik!... Hasi filmatzen"  
Landaberri 5. maila

**Ekainak 10 asteazkena, 11:00etan eta 19:00etan**

"Top model"  
Landaberri 1. maila  
"Rock and roll"  
Landaberri 1. maila  
"Ametsak"  
Landaberri 2. maila

**Ekainak 12 ostirala, 11:00etan eta 19:00etan**

"Liburu Magikoa"  
Landaberri 6. maila

**Ekainak 12 ostirala, 22:30ean**

"Grease"  
Gazteen taldea

**Ekainak 16 asteartea, 12:00etan**

"Fandantragoreinusot"  
Dantza garaikideko talde guztiak



# Datorren astean hasiko da VII. Antzerki Astea

## Desfile batekin emango diote hasiera aurtengo Antzerki Asteari

Atzo arratsaldean emandako prentsaurrekoan aurkeztu zuen Landaberri Antzerki Eskolak VII. Antzerki Astea. Maiatzaren 23an hasiko da eta ekainaren 16an emango zaio amaiera.

Joxe Mari Agirretxek egin zuen astearen aurkezpena. Aurten gainera, inoiz baino luzeagoa da, izan ere, gero eta talde gehiago daude, eta talde gehiago daude, eta gainera, kulturetxeko programazioarekin ezin izan dute jarraian egin.

### Gero eta talde gehiago

Aurten guztira 30 taldek hartuko dute parte Antzerki Asteaz; hauetako 23 antzerki-koak dira eta beste 7ak berriz dantzakoak.

Poliki-poliki ari da dantzaren atala bere lekua hartzen eta urtetik urtera talde gehiago ari dira sortzen.

### Herritik kanpo

Prestatutako emanaldiak Lasarte-Oriatik kanpo eskain-

tzen ari diren taldeak gero eta gehiago direla nabarmendu zuten Antzerki Eskolako kideek. Esate baterako, antzerkiko talde batzuk izan dira Deban, Azpeitian, Zarautzen, Andoainen... Baina dantzakoak ere ez dira atzean geratu eta Usurbilen, Beran... izan dira eta Azpeitian ospatuko den Dantzako Topaketan ere hartuko dute parte.

### Desfilea

Antzerki Asteari desfile ikargarri batekin emango zaio hasiera. Maiatzaren 23an bertan izango da arratsaldeko 19:00etan herriko erdiguneko kaleetan zehar. Desfile honean Antzerki Asteaz parte hartuko duten guztiak aterako dira beraien dantzako dohanak erakustera. Hirurehun lagun inguru bilduko dira datorren asteko desfilean.

Guztira 15 emanaldi eskainiko dira kulturetxean, beraz aukera paregabea antzerkia eta dantza gozatzeko.



Antzerki Astea aurkezpenan Landaberri Antzerki Eskolako irakasle, partaide eta lagunak bildu ziren.

# JUAN IRAOLA E HIJOS S.L.

## ITURGINTZA



## ITURGINTZA

## GASA

## BEROKUNTZA

## AIRE GIROTUA



Iñigo de Loiola Kalea 8 behea • administracion@iraola.eu • Tel.: 943 36 0 500 // 652 774679



Kiroltako oharrik

Ostadarreko erregionala animatzeko

Bi urte bigarren mailan igaro ondoren, Ostadar erregionaleko mutilek 1. mailara itzultzea lortu dute.

Baina ez da hau guztia. Liga amaitzeko 2 partidaren faltan, 2. erregionaleko final handia jokatzeko aukera dute. Horretarako, 2 partidak irabazi beharko dituzte.

Horregatik, zaletuei deialdia egiten zaie finalera iristeko bidean taldea lagundu dezaten.

2009/05/16 Intxurre-Ostadar, Alegin.  
2009/05/21 17:15ean, Ostadar-Amaroz, Mitxelinen.  
2009/05/30 FINALA

ESKERRIK ASKO ALDEZ AURRETIK!!



Landaberrikoek emaitza ezin hobekak lortu zituen Gipuzkoako tenis txapelketan.

Domin uzta Gipuzkoako tenis txapelketan

Gipuzkoako bakarkako tenis txapelketa finalak jokatu ziren lehengo larunbatean Ordizian. Eskola kirola egitasmoaren barruan kokatzen den egitasmo honetan, Gipuzkoako eskola eta ikastola ezberdinetako haur eta gaztetxoek parte hartu dute, baiata Landaberriko ikasleak ere.

Aste Santua baino lehen hasi zen txapelketa Ordizia eta Olaberriako tenis guneeetan jokatu da.

Txapelak eta dominak

Landaberriko ikasleak lau mailatan lehiatu dira, infantil

mutil eta neskek, infantil neskek eta kadete neskek.

Eta, gainera, maila guztietan lortu dituzte sariak. Alebin mutiletako txapelketa Ander Huegun lasarteoriatarra izan da; alebin neskatan txapelketa Paula Uli izan da eta hirugarren postua Sara Zulaiak eskuratu du; infantil nesketan hirugarren postua Andrea Gonzalezentzat izan zen eta kadeteetan lasarteoriatarren arteko lehia egon zen. Azkenean, Jaione Gueurrak eskuratu zuen txapela eta Janire Tovar izan zen txapelketa ordea.

San Pedroetako pilota txapelketarako izena emate epea ireki da

Intza Kirol elkarteak San Pedro jaietan antolatzen duen XVII. esku pilota txapelketarako izena ematea ireki da.

Txapelketa lehenengo partidak maiatzaren 30 eta 31eko asteburuan jokatuko dira eta finala ekainaren 30, San Pedroetako haurren egunean.

Lehenengo partidak Okeno jokatuko dira, baina oraindik zehazteko dago non jokatuko den finala.

Izena ematea

Benjamin, Alebin A, Alebin B eta Infantil mailatan lehiatuko dira txapelketa honetan.

Honela, Benjamin mailan 1999 eta 2000 urtekoak jokatuko dira, bakarka eta pilota goxuarrekin; Alebin B mailakoek, hau da 1998an jaiotakoak ere pilota goxuarrekin arituko dira eta Alebin A, 1997 urtekoak, eta Infantilek, 1995 eta 1996an jaiotakoak, bikoteka jokatuko dute.

Txandalarekin jokatuko dira partidak, finala izan

ezik. Honetan, jantzi zuria eraman beharko dute parte hartzaileek.

Michelingo kirol gunean egingo dira izena emateak astearte eta osteguna 19:00etatik 20:30era eta, horretarako, J.M. Arteagatik galdetu behar da. Izena emateko azken eguna maiatzaren 26a, astearte, izango da.

Herriarteko txapelketatik at

Lasarte-Oriak Elgoibarren aurkako herriarteko txapelketa 1-5eko emaitza eskuratu zuen eta, ondorioz, Lasarte-Oria lehiaketatik kanpo geratu da.

Lasarte-Orian jokatutako kanporaketan 1-2 geratu ostean, Elgoibarren lehengo ostiralean ez zuten aukera handirik izan eta hiru partidak galdu ziren.

Kadeteek, Ander Recondo eta Unai de Miguelek 22 eta 6 galdu zuten, Jon Pello Arteixe eta Unai Ituarte jubenilek 22 eta 18 eta senior mailan, Aritz Urkia eta Xabi Arteaga 22-11.

Kiroltako agenda

FUTBOLA

Larunbata 16

10:30ean, Ostadar-Hondarribia (Infantil Txiki Kopa) Michelinen.  
16:30ean, Texas Lasartearra-Dunboa Eguzki (II. Erregionala, kopa finalaurrea) Michelinen.

12:45ean, Elgoibar-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Mintxeta, Elgoibarren.

15:30ean, Intxurre-Ostadar (II. Erregionala, igoera fasea) Elorri, Alegin.

15:30ean, Kostkas M.B.-Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa final laurdana) Matigoxotegin.

16:00etan, Zestoa-Ostadar (I. Jubenila, igoera fasea) Iraeta, Zestoa.

Igandea 17

10:30ean, Ostadar-Euskalduna (Alebinen Txapelketa) Michelinen.

11:30ean, Bergara-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Agorrosin, Bergaran.

16:00etan, Eibartarrak-Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa finalaurrekoa) Unbe Inf, Eibarren.

FUTBOL 7

Igandea 17

11:00etan, Niasa-Corpa-K-2 taberna (III. Maila) Usurbilen.



FUTBOL 8

Larunbata 16

11:00etan, Soraluze BHI-Lasarte BHI (Infantila eskolartekoa, txapelketa) Ezozia, Soraluzen.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 16

17:45ean, ISU Ieihoak-Pub Shepherd's (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.  
18:00etan, A.D. Suisaco Armenia- Aldatza H.K. (Euskal Liga) Aldabe kiroldegia, Gasteizen.

HERRIKO TXAPELKETA

Ligila eta kontsolazioa

Michelin edo frontoian

11:00etan, Epel-Mayi

12:00etan, Viña del Mar-Katanga

Igandea 17

HERRIKO TXAPELKETA

Play-off finalurrekoak

Kiroldegian

10:15ean, Buenetxea-Izkiña

11:30ean, Jordi-ISU Ieihoak

SASKIBALOA

Larunbata 16

16:00etan, Ainhoa-C. D. Internacional A (Gizonetako seniorrak) Kiroldegian.



SQUASH

Kiroldegian, 18:00etatik aurrera

Ostirala 15

Iñaki Garcia-J. R. Urruzola Aitor Reyes-Alberto Udabe

Astlehena 18

Julen Vega-Xabier Amiano Txema Valles (baja)-Diego Barrasa

Astearte 19

Iker Cafedo-Kinin Calvo J. R. Urruzola-Aitor Artola

Asteazkena 20

Alberto Udabe-Iñaki Garcia J.A. Ramos-Aitor Reyes

Osteguna 21

Agustin Erkizia-Julen Vega Xabier Amiano-Txema Valles (baja)



PILOTA

Larunbata 16

UDABERRI TXAPELKETA

16:00etan, Oiarpe 6-Intza 3 (eskuz binaka, infantilak) Igeldon.

16:00etan, Intza 2-Añorga (eskuz binaka, infantilak) Astigarragan.

16:00etan, Intza 1-Gure Txeru (eskuz binaka, infantilak) Aritzbatalde kiroldegia, Zarautzen.

IGERIKETA

Larunbata 16

10:00etan, Buruntzaldea taldeko igerilariak IV: Richard Oribe sarian parte hartuko dute, Paco Yoldi Kiroldegian, Donostian.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 16

16:00etan, Buruntzapiko txirrindulariak Infantil eta Alebin mailako Gipuzkoako Errepedeko Txapelketan, Urdanibia, Irunen.

ATLETISMOA

Igandea 17

Goiza, Ostadarreko atletak Donostiako IX. Maratoi erdian parte hartuko dute.



BOLA-JOKOA

Igandea 17

10:00etan, Ostadarreko bolo Gipuzkoako kopan parte hartuko du, Aian.



Egunero

**Erakusketa**

KIRIOAK DANTZAN kamiseten erakusketa Vanessa Gimeno, pintura oihalean. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



**Erakusketa**

LASARTE-ORIA BIZILAGUN ELKARTEKO MARRAZKI ETA PINTURA IKASLEEN LANAK ikusgai. Doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 15

**Dantza**


CONCERTO DESCONCERTO emalndia eskainiko du Entremans konpainiak Lasarte-Oria dantza zikloaren barruan. Sarrera, 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

**Kontzertua**

TXALAGORE trikitixa eta txalaparta taldeak Basaundiko Garagardo Azoka girotuko du 20:00etatik aurrera.

**Antzerkia**

HONOLULU LEKU BAT antzezlanak Gilkitxaro taldearen eskutik. Ekitaldi hau Kultur errotaren barne dago. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean. EUSKARAZ.



Plastic taldea Abend antzokian

PLASTIC herriko taldeak kontzertua eskainiko du gaur ostirala Abenden. Urte hasieran edo, abeslaria aldatu zuten eta Plastic izena duen sei abestiko maketa aurkeztuko dute.

GAUR OSTIRALA  
ABEND KAFE-ANTZOKIAN  
GAUEKO 12:00ETAN



**Ekitaldia**

MARIA "LA VIKINGA" antzezleak umorezko ekitaldia eskainiko du Sasoeta auzoko Udaberri tabernan, iluntzeko 22:30ean, GAZTELANIAZ.

**Ekitaldia**

MOVIMIENTO BOLA taldearen bakarrizketa Sasoeta auzoko Naiban tabernan, 23:30ean. GAZTELANIAZ.

Larunbata, 16

**Zinea**

KANPANILA ETA PETER PANEN ITZALA haurrentzako antzerkia eskainiko du Txalo produktzioak. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ.



Asteartea, 19

**Hitzaldia**

AMAGANDIK EDOSKITZEA, JANARIA BAINO ASKOZ GEHIAGO gaitzat hartuta hitzaldia eskainiko du Pilar Seminariok. Kulturetxean, 18:00etan, GAZTELANIAZ.

Ostirala, 22

**Kontzertua**

IPARVENT FOLK TALDEAREN emalndia Gazteria eta Festak sailak eta Xpressionk taldearen arteko hitzarmenaren barruan. Doan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

**Oharrak**

**Greba deialdia**

Ezker Abertzaleak maiatzak 21eko greba deialdia egiten du. Horregatik, *beste eredu ekonomiko baten aldeko* ekitaldiak antolatu dituzte gaurko, batetik argazki masiboa 18:30ean Okendon eta 19:00etan manifestazioa herriko kaleetan. Ezker Abertzaleak herritarrei ekitaldi hauetan parte hartzeko gonbita luzatzen die.

**Greba deialdia**

CNT-AIT sindikatutik kapitalismoaren kontrako grebara deitzen dugu maiatzaren 21ean. Mobilizazioak 10:00etan elkarretaratzea Lasarte-Oriako INEM aurrean eta 12:00etan Antiguoko INEM aurrean izango dira. Honetaz gain, pikete informatiboak ibiliko dira lantokietatik egun osoan zehar.

**Zabaleta auzoko festak**

Zabaleta Auzolanek jakin arazten du, ekainaren 2tik 7ra burutuko diren auzoko festak antolatzeko bilerak egingo direla, ostegunero 19:30etan, Antonio Blas plazan.

**Bidea itxita**

Udalak jakinarazi nahi du Zabaleta Berriko urbanizazio lanak medio, uztaiera arte Ilarraltzuetatik bidea itxita egongo dela, Larrekoetxetik Villa Maria Luisara arte.

**Frontoi eta paddle pistako lanak hasiko dira**

Gaurtik aurrera, frontoi eta paddle pista berriak eraikitzekeko lanak hasiko dira udal kiroledegia eremuan. Hori dela eta, aipatutako egunetik aurrera ezin izango da auzorik utzi orain arte behin-behineko aparkalekua zen eremuan.

**Musika eskolako aurrematrikula**

Irekitako Udal Musika Eskolan aurrematrikula egiteko epea. Egin ahal izateko azken eguna maiatzaren 22a izango da. Interesa dutenek kulturetxera jo dezakete 09:00etatik 13:00etara bitartean; telefonoz ere egin dezakete 943 376181 zenbakian edo e-maillez helbide honetan: [kultura@lasarte-oria.org](mailto:kultura@lasarte-oria.org).

**Korrika 16ko saridunak**

Korrika 16-ko arropa erostea-gatik jasotako txartelen zozketan honako zenbaki hauek atera dira: 98657,94136 eta 80766. Saria, aurtengo korrikako arropa sorta bat da.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
[txintxarri@ttakun.com](mailto:txintxarri@ttakun.com)  
[txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)  
[www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info)

Liburutegiko ordutegia



Astelehenerdik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

**Eskutitzak**

**Zelatur-en hitzordua: Gazume salba dezagun**

"Gazume salba dezagun" leloa izango du Gazume mendia defenditzearen alde eta bertan zentral eolikoa jartzearen aurka igande eguerdian mendigoizale eta naturalistek, aldarrikapena eta jai-giroa uztertuz, burutuko duten ekitaldiak.

Deialdia luzatu dutenen iritziz, natura, habitata, bio-aniztasuna, babestutako espezieak eta paisaia zaintzeko hartu diren neurri erabaki, betebeharrak edota konpromisoa betetzetik urruti dago Erkidegoan indarrean den lurralde-plan eolikoa.

Errezil, Asteasu eta Azpeitiko herrietan 100 m.ko altuera eta guztira 12,5 MWko potentzia duten 15 aerosorgailu jarriko direla jasotzen eta aurreikusten du Gazumeko parke eoliko egitasmoak.

Gazume mendiaren gailurreraino 4 kilometro errepide berri baino gehiago eraikiko dira, zanga eta lubakiak egingo dira argi-indarra bideratzeko, 46.000 metro karratuko mugituko dira eta goi-ten-tsioko 8 kilometroko linea jarriko da. Honek hainbat ondorio izango ditu, mendi ezaguna industrializatzea; habitata zein paisaiak aldatu eta suntsitzea; migrazio-toki batean txoriek zarata, talka eta kolpeak, elektrozioak,

zaititzak eta hesi efektua; higadura eta espezie aloktono edota erasotzaileak sartzeko arriskua.

Zentral eolikoa jartzeko asmoa ez da bidezkoa, energia kopuru oso txikia sortzeko ingurumen eta paisaia balio handiko habitata suntsitzen direlako.

Arriskuan diren espezieen euskal katalogoan ageri diren putre, sai eta ugatzek jasango dituzte zentralaren ondorioak. Espezie hauen aurka, batez ere azken saien eta ugatzen aurka, inguru honetan eragindako edozein aldaketak nahitaez euren hazkunde berria oztopatu edo moztuko du eta azken babeslekuetan diren espezie hauek arrisku larrian jarri.

Aipatutako guztiak kontutan izanik, SEO/BirdLife, Eguzki eta Club Vasco de Camping, elkarrekin, Gipuzkoako elkarte kontserbazionista eta mendizale talde gehienekin batera, iritzi publikoaren arreta eskatu dute, Ernio-Gazumen horrelako instalazio bat jartzeko sortuko dituen arazo larrietatik jabetu dadin, eta aldi berean datorekin igandean, maiatzak 17, eguerdiko 12etan Zelaturneko muinoan burutuko den aldarrikapen-jai ekitaldian parte hartzeko deia luzatu dute. <http://gazume.blogspot.com>, [seodonastia@gmail.com](mailto:seodonastia@gmail.com).

EGUZKI, SEO/BirdLife eta Club Vasco de Camping



# Pirritx eta Porrotx masajeen munduan

Pirritx eta Porrotx eta Mari Motots *Piratak* DVDaren prestaketa dabilta buru belarri. Beti bezala sorpresa ugari egongo da bertan eta horietako bat masajeei eta haurrek izan ditzaketen minen buruzko zatia da. Izan ere, *Piratak* izeneko diskoan masajeen oinarritzen den abesti bat baitute. Masajeei buruzko informazioa bildu behar izan dute eta hori dela eta Ibaiondora jo zuten pailazo bihurri hauek.

TXINTXARRI

Pirritx, Porrotx eta Marimoto- tsek bisita egin zioten martxoan Ibaiondo fisioterapia zentroari. Izan ere, Lasarte-Oriako pailazoak *Piratak* DVDa prestatzen ari baitira udazkenerako, eta erreportaje sorta batekin osatu- koa dute. Masajeak izeneko abesti bat daukatenez, masajei buruzkoa izango da erreportaje horietako bat. Pailazoek azaldu zigutenez, "bideo klipa eta erreportajea izango da aldi berean, 15 bat minutukoa."

Ibaiondoko Iker eta Arratek eskuak zabalik hartu zituzten pailazoak eta hainbat gauza azaldu zizkieten haien lanari buruz, hala nola, futbol zelaian egindako txoraktilako bihurritu bat edo kobxe istripu bat egite- rakoan zer gertatzen den, ondoren errehabilitazioa nola egiten den eta zein teknika erabiltzen diren hori sendatzeko.

Ibaiondo zentroan egintzen azkeneko grabaketan bizkarreko minaren aurrean zer egin azaltzen dute. Izan ere, Porrotxi motxila handi bat hartu izanagatik bizkarreko mina jartzen baitzaio.

DVD berriaren erreportaje- an hori sendatzeko teknikak eta min hori ekiditeko gomendioak azalduko dituzte Ibaion- doko lankideek.

Hiru kasu hauetaz gain, gauean oherakoan haurrei ematen zaizkien masajeak nola ematen diren ere azaldu zieten Iker eta Arratek.

Masaje lasaigarri honen azalpenak emateko guztiak Usurbilgo haur eskolara egin zuten txangoa eta bertan haur eta gurasoei egin zuten proba.

## Ibaiondokoekin solasean

Pirritx eta Porrotx eta Mari Mototsen DVDaren grabaketa aitzakiatzat hartuta Ibaiondo fisioterapia zentroko Ikerrekin solasean aritu gara.

Pailazoek eta grabaketari buruz galdetzerakoan zera esan digu, "pailazoekin izan genuen esperientzia polita izan zen. Oso ondo pasa genuen, bai nik, baita Arratek ere." Izan ere, grabaketetan Ikerrek eta Arratek hartu baitute parte, lana bien artean banatuaz.

Ikerrek azaldu zigunez, ondo portatu ziren pailazoak eta Porrotxek ez zuten bihurrikeriarik egin.

Idea nondik zetorren gal- detu eta Ikerrek pailazoan gauza izan zela azaldu digu, "haiek etorri ziren guri ideia auzaltzera." Honela, guztiak batera gidoia prestatu zuten eta martxoan grabaketak egin zen, bai fisioterapia zentroan, baita Usurbilgo haur eskolan ere.

Pailazoekin masajeak eta 3 lesio ezberdin tratatu dituztela ere aipatu zigun.

Masajeei dagokionez, mota ezberdinak daudela azpi- marratu zuen. Batetik masaje terapeutikoa dago, kontraktu- rak eta lesioen kasuan ematen dira eta honekin mina dagoen lekua tratatzen da eta bestetik masaje lasaigarriak, hauek dira haurrei egiten zaizkienak.

Ibaiondon egon ziren bitar- tean lanean jarraitzeko aukera izan zutela ere esan digu, "lekua handia dugu zentroan eta grabaketa gela bakarrean egin dugu."

DVDari esker, guraso eta haurrentzat lagungarri izatea espero dutela ere aipatu du Ikerrek, baita gure Porrotx bihu- rriarentzat ere.



Pirritx, Porrotx eta Marimoto- tsek Ibaiondon egon ziren min ohikoek nola sendatu eta masajeak nola egin jakiteko.

## Ibaiondo zentroa

Era berean, Ibaiondon bere lana egiten jarraituko dutela ere esan digu.

Ibaiondo zentroak 12 urte darama lanean Lasarte-Orian. Bertan fisioterapia egiten dute eta fisioterapia barruan sar- tzen diren osteopatia, erreha- bilitazioa, masajeak...

Jan taldean fisioterapeuta tituluak daude eta guztiaren buru Iker eta Arrate daude.

Helduekin, zein haurrekin egiten dute lan. Azkeneko hauen kasuan, batez ere, masaje lasaigarri eta bizkarre- ko minak sendatzen dituzte.

Baina hainbat patologia ere tratatzen dituzte, istripuak, traumatologia, neurologia, errehabilitazioak... Eta Osaki- detzako itxaro-zerrendetan zain dagoen jendeak askotan horrelako zentrotara jotzen du. Ikerrek dioten bezala "oroko- rrean istripua izanez gero gehie- netan errehabilitazioa egitera ospitalera eramaten zaituzte, baina aukera dago guregana etortzeko." •

## Ilargiaren sekretua katalanez



Arg.: Hik Hasi

Maiatzaren 10ean aurkeztu zen Bartzelonan *El secret de la lluna* filma. Hik Hasi ekoiztutako filma 2004ean estreinatuta euskaraz eta haren balio hezitzailea ikusi- ta, eta hezur-haragizko prota- gonistak dituzten katalanezko haurrentzako filmak urriak direla kontuan hartuta, *Musi- ca Trapellak* hutsune hori bete nahi izan du Hik Hasi egin- dako lana oinarri hartuz eta filma katalanera bikoiztuz.

*El secret de la lluna* filma pantaila handian proiektatu dute, Kataluniako hainbat hiri eta herritan. Eta ondoren, ahalik eta ikastetxe gehiene- tara iristen saiatuko gara. Bestalde, salgai jarriko da DVD formatuan eta horrek 3 zati izango ditu: filma, lan didaktiko bat eta hiru bideo- klip (horietako bat *T'estimo molt*, Pirritx eta Porrotxen *Maiete zaitut* kantaren katala- nezko bertsiorekin). •

## Lasarte-Oria Egañaren kontra Ezetz 5. txapela!



MAIATZAREN 23an, 21:00etan

BERTSO AFARIA ARRIESKALLETAN

Txartelak: 25 euro,  
Arrieskalletan eta Jalgin

### Menua:

·Urdaiazpikoa, bakailoa, rabilloa,  
postrea, kafea eta kopak (libre)

\* Afarira joateko ez da Arrieskalletako  
bertsideo izan behar

ANTOLATZAILEAK:

